

GARRAIO BEREZIEK AUTOESKOLTA ERREGIMENEAN ZIRKULATZEKO BAIMENDUTA DAUDEN
IBILBIDEAK

SANTURTZIKO PORTUA – EGINO eta kontrako noranzkoa

Santurtzikoko Portua	N-644	A-8	BI-10	AP-68	N-622	A-1	Egino
----------------------	-------	-----	-------	-------	-------	-----	-------

Autoeskoltan 3 multzora arteko konboiak ere zirkulatzeko onartutako ibilbidea. Hala ere, Ertzaintzaren laguntza beharko da jarraian adierazten diren tarteetan edo puntuetan:

1: Eginoren noranzkoan


- Multzoaren luzera abiatzeko ordenan > 69,9 m denean: Santurtzikoko Portuko irteeratik N-644 errepidera, eta A-8ko lotuneraino, laguntza egingo da irteeran kontrako norabidetik, A-8an sartzen den arte.

2: Eginoren noranzkoan

- N-644/A-8 lotunea: Kantabriatik datorren trafikoa baretzea, konboia A-8an guztiz sartzen den arte.


3: Eginoren noranzkoan

- N-622/A-1 lotunea: A-1eko irteera-adarra moztea, Vitoria-Gasteizerako noranzkoan eta Bilborako noranzkoan.




RIBABELLOSA - EGINO eta kontrako noranzkoa		
Ribabellosa	A-1	Egino

Autoeskoltan 3 multzora arteko konboiak ere zirkulatzen onartutako ibilbidea. Ibilbide honek ez du poliziaren laguntzarik behar, Ertzaintzak egokitzen ez badu behintzat.




RIBABELLOSA - EGINO eta kontrako noranzkoa (AP-1tik)			
Rivabellosa	AP-1 (Armiñón)	A-1	Egino

Autoeskoltan 3 multzora arteko konboiak ere zirkulatzeko onartutako ibilbidea. Ibilbide honek ez du poliziaren laguntzarik behar, Ertzaintzak egokitzen ez badu behintzat.




ARMIÑON - EGINO eta kontrako noranzkoa		
Armiñon	A-1	Egino

Autoeskoltan 3 multzora arteko konboiak ere zirkulatzeko onartutako ibilbidea. Ibilbide honek ez du poliziaren laguntzarik behar, Ertzaintzak egokitzen ez badu behintzat.




JUNDIZ - EGINO eta kontrako noranzkoa		
Jundiz	A-1	Egino

Autoeskoltan 3 multzora arteko konboiak ere zirkulatzeko onartutako ibilbidea. Ibilbide honek ez du poliziaren laguntzarik behar, Ertzaintzak egokitzen ez badu behintzat.



EL HAYA (Kantabriako muga) – SANTURTZIKO PORTUA eta kontrako noranzkoa		
A-8 El Haya	N-644	Santurtziko Portua

Autoeskolta erregimenean 3 multzora arteko konboiak ere zirkulatzeko onartutako ibilbidea.



Ertzaintzaren laguntza:

Ez da laguntzarik behar noranzko batean ez eta bestean ere, Ertzaintzak egokitzen jotzen ez badu behintzat.

Honako jarraibide hauek bete beharko dira ibilbidean:

- **Bi noranzkoetan:**
Martxaren noranzko bereko bi errei dituzten bide-tarteetan, laguntza-ibilgailu pilotuek saihestu egingo dute ezkerreko erreia beste edozein erabiltzailek erabiltzea, konboia igarotzean.
- **” EL HAYA (Kantabriako muga) – SANTURTZIKO PORTUA”:**
Ibilgailu pilotuek egin beharreko maniobrak, multzoaren **luzera**, abiatzeko-ordenan, **> 69,90 m** denean.
 - Garraio bereziaren presentzia seinalatzatzea, N-639tik datorren trafikoa N-644ra sartzen den lekuan kokatuz (aire-ikuspegiaren irudia - Puntu gorria), eta N-644aren ezkerreko erreitik zirkulatzeari saihestea, zamak errei horren gainetik hegan egiten duen bide-tarteetan.



- Aurreseinalizatzea, garraio bereziari gero estaldura emanez, eta gainerako bide-erabiltzaileei horren presentziaren berri ematea. Arriskuko edozein egoera edo maniobra saihesteko adinako distantziara jarriko da.

EL HAYA – EGINO eta kontrako noranzkoa						
El Haya	A-8	BI-10	AP-68	N-622	A-1	Egino

Autoeskoltan 3 multzora arteko konboiak ere zirkulatzeko onartutako ibilbidea. Hala ere, Ertzaintzaren laguntza beharko da jarraian adierazten diren tarteetan edo puntuetan:

1: Eginoren noranzkoan

- N-622/A-1 lotunea: A-1eko irteera-adarra moztea, Vitoria-Gasteizerako noranzkoan eta Bilborako noranzkoan.

